


Y DE PERFIL.



Urtaroen eta urteen iragaitearekin iraukortasuna frogatu nahi duenak badu non mira. Pose sozialak furi-furian zirenean, ahoa zabaldu orduko hozka nahiz hoska hasten zirenen garaiean ahopetik bezala idazten zuen, hasarrealdietako biharramunak utzi ohi duen tristuraz —heroeak imajinazio erreinuetan bizi omen dira eta— buruz idazten zuen, eta pinturak bezala esaten zituen momentuak, baina barruagotik haize eta itsas orroen imitazionetan hasi gabe; memoriaren bide itxezinetan birrikusten zen momentu iragana. Ez da ohizko oraina —poesia sozialarena— ezta itxaropen etorkizunekoena poema onenetan grabaturik geratzen dena. Ez da denbora kronologikoa, memoriarena baino eta horregatixe erloju guztien gainetik dabilena, erreala eta mitoarean artean.

Estiloa erakutsi beharrean denak ez omen du zer erakutsi handirik, bere eskola eta herria, bere amodioak oro apokrifoetan izendatzen dituen ez da bere baitako hitzez ari, ez gaitu jartzen adi. Gaitz horietatik libro izateak bereizten du Mikel Lasaren poemagintza literaturaren azken mende honetako berrimin ismodunetarik, irakurtzean erreala taupadak entzuten bait ditugu, eta ez boligrafo tristeen inmintziazko erditze min eta garrasiak.

TERE IRASTORTZA



Bitartean ametsa da

*Bitartean ametsa da
zuk erran didazuna maitea:
maite nauzula enia zarela.*

*Gaua zen ta ilargi haundia
gezurrezko gaua gezurrezko ilargia.
Bi itzal besterik ez ginen
lilurazko gau hartan
itsasoaren ertzean eta
haitz haundi baten gainean*

(1961)

*maitea zure besoetan
ez da ilargirik ez izarrik
zure besoetan maitia
galdu egiten naiz ez dakit nungo bideetatik.*

(1961)

TAMARIZA ETA PIKONDOA

I.- Amorio galduak

(goiz heltzen diren pikoak
maite ditu nere animak, ATSULAR)

*Euriaren tristea
ari ta ari atergabeko amaian.*

*Katuak ganbaretan lo daudez gau t'egun
denborari denbora emanaz...*

*Paradisu galduetako oroipena da
nola palmondo haundi baten pean
itzala genuela adiskide
nola tamariza ta pikondopean
ari ginen pekatu
haragizko pekatua
euriagatik triste ari
triste diren bezela tamarindoaren adarrak
itsas bazterrean
euriaren pean
triste ta ustel palmondoa
udazkenean
"chalet" ubelaren jardinean
Zarauzko plaiatik ez hain urruti.*

*Nola bion gorputzak gurutzaturik
(ba ginakien ez genuela elkar maite)
bestearengan bilatzen genduan
gurean ez daukaguna:
mundu axolakabeak itsaso izugarriak plaiaren
ematen ez ziguna: maitasunaren arrastoa.* /bakardadeak

*Arratsalde hura munduaren azkenengo eguna zen
t'amor eman genion bizitzari
Udaberrian kantatu nuen hasierako egunaz ez naiz* /oroitzen

*Jainkoak gizona tankeratu zuen egunez
bizirako arnasa ixuri zioenaz
ez naiz oroitzen
paradisuko azken egun hontan.*

*Katuak ganbaretan lo daudez
tolesgabeko ametsetan
urteak eta denborak deusezten
edo ta denbora milaka ugaritzen.*

"DANA" ta "NADA"-k zirkulua bukatzen dute.

II.- Denboraren marka

*Ene biziaren tristeziatzko
sinoak
zeinek bait du urtearen zehar
biziaren hari guztia kolorazten
zeinek bait du ene arpegiaren eskultura
beheraka zimurrez markatzen.*

*Itsas-ontzi aintzinako kobrearen metal zaharrak
ez du ene itxura tristearen tristura
eta plaiá-hondar-hustuak udazkenean
ez du ene etsipenaren zapore garratza.*

*Tamariza eta pikondoak
nere haurzaroko izarotik
denak erroz desustraituak izan dire denak!
Izagak soilik haizeari buru emanaz
tristeziatzko salmoak
murmuratzen dituzte
ipar-haizearen eraginez ta berresaten:*

"Oi gure denbora hunen desolamentua!"

(1962)

Egunsenti izoztua


*Egunsenti izoztua. Batbatean
gaua beltz luzearen ondotik
trenaren etengabeko ritmo hirukoia
mutu geratu zen. Ixilune izoztua
batbatean. Jaun Zuria.*

*Urrutitik etorri amets zurrunbiloa
bata bestearen ondotik
marmol-irudiz bihurtu zen.
Multzoaren ale guztiak
bata bestearen ondoren
etenik, bereizturik
A-le-rik-a-le-bat-ba-te-an
ba-kan-du-ak-a-le-tu-ak.*

*Ene iratxoetan iharrenak enekin neramazkin
zazpi-urte-geroz gibeleratuak.*

*Denbora etena. Geldo gotortua,
Ene begiak haundiz haundi ideki nituen
eta kolpean berriro hiriko
kalbario mendia agertu
mixeriazko txabolak
lerroz lerro lurrean etzanikan
doi-doiak muñoari atxikiak.
Mendi muño kaska-motza
mixeriaren azidoak errea.
Azken egunean agian
gizonaren soada diteken bezelakoa.*

*Hemen zegoen egon gizona
txaplata beltz iduria
errukigabeko eguzkipean
bidexiorrean kixkaldua
ari litsetan xahutzen ari den
marrazki beltz asaldatua.*




Ghetoa

*Lekunea ikaragarri zabali zen
lau aldetara argizko hutsuneak
bortxa egiten ziola mundu hertsia*

*Ene bihotza katibu zegoen baina
lau ideia hertsia goen gira-hirazko
mugimendu amaigabeko zorabioan.*

*Baina ikusi dut ikusi
zuhaitza soila
hornidura guzietz bilustua
ihunabar gorian
zeru argiaren kontra islatua
soila
bakarra
bakana
marra hutsa*

Ene arimaren atxikidura bakarra



Esperpento

*Ihauteria da
eta ihauteri gauean
kale ixiletan barna goazela
ipar-aldeko hiri haundi honetan galdurik
burdelak ikusten
larehun pesetakoak eta hirurehunekoak
gure boltsa urriarentzat nahikoa ehunekoak.
Denak dira emakumeak
eta gorputz uxatuen xarma ustela bilatzen dugu.*

*Mauka ta mauka ar-emeak
izorkeria egiten eliz-zaharreko paret bazterrean.*

*Berdin da bakardade honetan
arpegi ederrak hala itsusiak
emakume denen arpegietan
halako animalikeria somatzen dut
zoramena arpegi-idorra mirada fijoak.*

*Ihauteria da ihauteri gaua
ta inork ez daki bakoitzaren bakardadearen berri.
Argi bakoitza itzalean hiltzen da
agoni ixilean
nola Kristo profanatu hori bilhutsik
bide bazterrean hain desesperatuki etsia
agonian infernuetara jexia
hirugarren egunik gabeko Kristoa
sinesten dut.
Eta argiak milaka izanik ez dute argi egiten.
Tarteka gaua da jabe.*

*Hala gu hala gure bakardadean
ihauteri gabeko hirurak eta bost inguruan.*

(1967)

HEMEN DATZA POPEYE

(Faulkner-en oroitzapenez)

*Popeye espetxeratu duten presondegiko patioan
ilunabarreko haize-boladak bildurgarri astintzen duen
Paradisuko zuhaitz horren aldean
Pariseko UNESCO-ren jardineko Calder-en mobilak
historia aurreko fosiltzak dirudite*

*Eta, nor ausartuko ote Unesco-ren zuzendariari -
gorazar egiten?
Eta nork eresi bat kantatuko ote dio
euren zerbitzari den Edozein-Edozer jaunari?*

*Baina Popeye hiltzaille beltza, presondegiko
leiho ondotik bere bizia eta heriotza
kantari dihardu eta berarekin batean
beste gaizkile beltz andana mixerablea
koru eginaz.*

*euren herriaren patu txarrari karraxika:
"Quat'jou'enco"! et alo! y vont pend'
le meilleu'ba'yton du Missisipi du No'!!*

(1978)

(*1) Poema hau ez da biltzen ez 1. eta ez 2. argital penetan

MIKEL LASA